

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juanita Garmendia Elosegí

*Orendain,
Gipuzkoa
(1921)*

Aurkibidea



Biografia



Orendaingo Bidearte baserrian jaioa. Hamaika urte bete arte herrian bizi izan zen, baina komunio handia egin eta berehalaxe, Berrobira joan zen neskame, Tontola baserrira. Han bizi izan zen sei urtez, urtean behin etxera itzuliz. Hamasei urte zituela, Orendaingo komentutik abisua jo zioten bere amari, Gasteizko seminarioan lanerako jende beharrez zebiltzala, eta Juana eta bere anaia joan ziren bertara lanera. Han bi urte pasa zituen. Ordurako, ordea, bazuen gizongaia, eta hark ezkontzeko eskatu zionean, etxera itzuli zen. Hemeretzi urterekin Ikaztegieta ezkondu zen, taberna zuen Zubiaurre etxera. Han nahikoa lan egina da, sukaldean eta zerbitzatzen. Azken urteetan ere bertan bizi izan da.

Zintak

ORN-001

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2010-02-24
- **Iraupena:** 103 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Arteaga, Karmele

Pasarteak

1. Umetatik lanean

- **Erref:** ORN-001/002
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:01:52. **Bukatu:** 00:02:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

<p>11 urte zituela, neskame joan zen ume txikiak zituzten etxe batera. Eskola bukatu, komunio handia egin eta lanera joan zen.</p>

Transkripzioa

- Jo, ba, ordun zu Orendaiñen jaiyo ziñan ta noiz arte eon ziñan Orendaiñen, zenbat urte bitarten?
- Hamaika urte bitarten Orendaiñen eon nitzen.
- Hamaika urte?
- Hamaika. Ta hamaikakin jun nitzen neskame.
- Lanea seittun.
- Bai, seittun lanea, eskolatik ateatzeko zai zeren, ni zeatzeko, harea emateko. Zeati ni jun nintzen etxe hortan ume txikik zeren, ta nik eskola bukatu zai. Esan zian nere amak: “Ez, eskola bukatu arte ez zea jungo”. Ta hamaika urtekin ya komunio haundia itten zan ordun, eta ordun jun nitzen.
- Lehenaotik zuk nahi zendun, jun nahi zendun?
- Nik ez, baiño aittek bai, ni hartu behar niñunak lehen nahi zun. Entenditzen dezu? Baiño nik... amak esan zian nerek “Ez, hamaika urte betetzen dittezunen, ya komunio haundie itten dezu ta ordun jungo zea” esan zian. Ta hala jun nitzen.

2. Umetako bizimodua Orendainen

- **Erref:** ORN-001/003
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:02:48. **Bukatu:** 00:04:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Umetan, goizez eta arratsalde, eskolara joaten zen. Merienda ondoren, ur bila, egurra ekartzera edo horrelako lanetara joaten ziren. Geroago, arrosarioa esan eta erretiratu egiten ziren. Eskolara abarkekin joaten ziren. Komunio handia egin ostean, jaietan Larraitza edo Alegiara joaten ziren, baina etxera goiz etorri behar izaten zuten. Horrelakoa izan zen bere bizimodua, hamaika urte bete bitartean.</p>

Transkripzioa

- Ta ordua bitarte, hamaika urte arte, hor, ze bizi klase zenduen Orendaiñen?
- Bizi? Pues, beida, esango dizut. Eskolatik etorri... hortako, sei, sei urte baiño lehentxoxoti eskola hasten giñan. Goizen zortzitan sartu ta hamabitan atera; eta ordubik... bai, ordubik ingurun sartu eta atsalden bost eta erditan atea itten giñen. Eta gero merienda amak ematen ziun ta bat juten giñen ude ekartzea —ez zan etxen udeik urdun— itturri batea ude ekartzea bat. Beste batzuk egurrek batzeko ekartzea, beste batzuk behi ximaurrek, behiyek pasatutakon itten zien ta haik biltzea, ta holakoxe gauzak itten giñuzen. Ta gero ya goiz-goiz erretiatu, errosarioa esan ta erretiatu itten gendun. Ta holaxe. Ta gero hurrungo egunen eskolaa. Abarkakin juten giñan. Abarkak jantzi ta eskolaa juten giñan. Kamiñoa genduken, baiño, badakizu, zapataik ez gendun, ta abarkakin juten giñen eskolaa. Ta bueno, halaxe. Gero ya komonio ttikie in gendun, aurreneko

komonioa in gendun, ta gero bigarrena hamaika urtekin in gendun. Ta ya hue, hamaika urteako ya ez giñen oso tontak ez giñen, e! ta juten giñan Larraitzeaiño ta igandetan ateatzen giñen ta Alegria're bai ta... oso ondo pasatzen gendun, oso ondo pasatzen gendun. Baiño goiz etxea etorri behar. Goiz etxea etorri behar izaten gendun ordun. Ordun hola zan ta goiz etxea etorri behar izaten zan. Ta etxea etortzen giñenen, aldatu ta afaldu ta berriz'e jaien... ohira, pues astelehenen martxa asteko berriz'e. Ta nere hamaika urte arte holaxe bizittu naiz. Ta gero hamaika urtekin ya pasa nitzen beste bizitza hortaa, Berrobia.

3. Orendaingo eskolan euskaraz ikasten zuten

- **Erref:** ORN-001/004
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:04:50. **Bukatu:** 00:07:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Eskolara gustura joaten ziren. Klarionarekin egindako jokoan, salto egiten zuten. Udaletxe ganean zuten eskola. Maistra bat Donostiatik etortzen zitzaien batzuetan; baina, gehienetan, herriko apaizak erakusten zien. Apaiza oso ona zela dio. Dena euskaraz erakusten zien, maistrak ere bai. Eskolan zer erakusten zieten kontatzen du. Dotrina ere eskolan ikasten zuten. Otoitz guztiak etxetik ikasita eramaten zituzten.

4. Josten ere eskolan ikasi zuten

- **Erref:** ORN-001/005
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:07:57. **Bukatu:** 00:09:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

<p>Josten eta puntua egiten erakutsi zieten eskolan. Bastidore batean lanak egiten zituzten. Tresna harekin letrak egiten zituzten.</p>

Transkripzioa

- Eta eskola hortan ikasten gendun trapu batekin, puntu... puntu batzuk itten, josten, josten. Gero, bastiroia-o izaten zan hola egurrezkua ta han tela jarri eta dibujatzen, kolore bateko hariekin, beste kolore bateko hariekin... dena dibujatu. Konparazioko, erropa bati eantsi nahi baldin bada, eta hola. Hola izaten zien. Letrak, letrak itten zien hola, dibujatu. Bai. Hola, aparatu bat izaten zan borobil-borobille, ta gero beste tela jartzen ziozun hemen, ta gero beste borobil harekin ixtu-ixtu jarri ta tela dena orratzakin ze letra in behar dezun ta ze harikin... Paperak ekartzen zun ta parer harekin itten zun... itten gendun holako... eskolako gauzak, eskolako gauzak, eskolan.
- Paper baten idatzita zeon hari honekin hainbeste [...]?
- Hori da, hori da. Nola etortzen die dibujok ume txikikin, umek e... halaxe.

5. Eskolako errekreoak eta umeen arteko haserreak

- **Erref:** ORN-001/006
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:09:01. **Bukatu:** 00:11:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Eskolan errekreoa izaten zuten goizean eta arratsaldean. Txingotan eta korrika jolasten ibiltzen ziren. Ume asko zeuden, neskak eta mutilak elkarrekin. Orduan familiek ume asko izaten zituzten. Anai-arreba asko izaten ziren eta beraien artean haserretu ere egiten ziren. Etxean haserre haiek kontatuz gero, zigortu egiten zituzten. Maisuaren haserreak ere ez zituzten kontatzen, badaezpada.</p>

Transkripzioa

- Ta halako gauza batzuk itten giñuzen, ta gero errekreoa. Hoi bai, goizen errekreoa ordu erditxo bat igual, ta atxalden [hua're] errekreoa bai.
- Ta errekreon ze [...]?
- Jolasa, esan dizut, txingon, eta harrie botata, eta gordeketan, bat gorde ta billatzen korrikan eta holakoxe gauzak errekreotan. Bai, holaxe itten gendun, bai.
- Neska-mutillak batea ibiltzen ziñaten?
- Bai, bai, bai, bai, denak. Eskola bakarra zan ta denak batea. Asko e, igual hirurogei bat igual e. Bai, bai, bai, asko-asko ibiltzen giñen. Urdun asko izaten zien, badakizu, gaur ez dia asko izaten baiño. Urdun familitan, txikin-txikina're bosteko familik izango zien igual ta handik gorakok hamabi-hamahiru igual eta asko juten zien, asko juten zien. Batzuk tontagok, bestek espabilatugo, bestek ez dakit nolakok, baiño behintzat hantxe.
- Asko anai-arrebak izango zian.
- Bai, asko bai, asko bai, asko anai-arrebak. Gure etxeti're bolara hartan jungo zien bost; bost jungo zien gure etxeti're. Ya zaharrenak ya beste... neskame ta. Tolosan'e bi ahizpa eon zien ta... Bai.
- Ta elkar babesten zuen anai-arrebek? babestu, hola, lixkarren bat balin bazan bin arten, ateako zan baten anaia o besten...
- Hasarre.
- Bai?
- Hasarretu, honbre, hasarretu, ta urdun haserretzen danen amai esaten ziun "Ama, hoi hasarretu in da", "Aber, ze in diozu?" ta esan dunai jo amak zaplattan itten zion. Ez zun hurrungon esaten ze in zun, ez zun hurruna esaten ze in zun, ixildu zun amak. Uain'e hobe luke hoi ingo balue. Uain bestaldea ateatzan die, baiño... bai, bai, hobe luke. Holaxe.
- Ta lehen esaten bazun batek maixuak jo in ziola, amak bestia? o nola zan hoi?
- Ez gendun esaten hori, e! Hoi, hori esaten bagendun amak esaten zun "Bai, zuek jo zaittuzteneako zerbait in diozue maixuri". Akabo, ixilik. Gaixtok giñen, e!
- Bai?
- Gaixtok giñen bai [...]. Itxen'e paliza ematen ziun esaten bagiñuzen ta gorde itten giñuzen, gorde itten giñuzen.

6. Txingotan jolastea gustatzen zitzaien

- **Erref:** ORN-001/007
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:11:18. **Bukatu:** 00:12:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Mutilak bihurrikerietan ibiltzen ziren. Zepoekin txoriak harrapatzen zituzten. Neskak gehiena txingotan ibiltzen ziren. Txingoak nolakoak izaten ziren azaltzen du.

7. Elizako ohiturak erakusten zizkieten

- **Erref:** ORN-001/008
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:12:28. **Bukatu:** 00:14:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Eskolan errezatu ere egiten zuten eta elizara ere eramaten zituzten. Komunioa egiteko garaian zenbait gauza erakusten zizkieten. Konfesionario desberdinak ziren ordukoak.</p>

8. Aingeru jantzi eta Ama Birjinari abesten zioten maiatzean

- **Erref:** ORN-001/009
- **Iraupena:** 0:04:08. **Hasi:** 00:14:07. **Bukatu:** 00:18:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:

Maiatzean urtero aingeru janzten ziren. Aingeru janzten zirenean abesten zituzten kantak gogoratzen ditu. Oso polita izaten zen eta polit polit janzten zituzten. Bezperak arratsaldeko lauetan izaten ziren.

9. Umeak etxean lana asko egiten zuten baino eskolako lanik ez zuten ekartzen

- **Erref:** ORN-001/010
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:18:15. **Bukatu:** 00:20:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Orendainen ez zen musikarik izaten igandetan, festetan bakarrik. Etxean umeek lana asko egiten zuten. Orduan eskolatik ez zien etxerako lanik bidaltzen. Ikasi eskolan bertan egiten zuten. Gehiena dotrina ikasten zuten, dena buruz. Etxean errepasatu egiten zuten. Bi liburu izaten zituzten, mezetakoa eta dotrinarena.

10. Gutxi izan arren, zegoena banatzen zen

- **Erref:** ORN-001/011
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:20:20. **Bukatu:** 00:23:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Juanitak hamar senide izan zituen eta hamar seme-alaba, zazpi neska eta hiru mutil. Lehen baserri txikia izan arren denak hantxe ibiltzen ziren eta goserik ez zuten pasatzen, zegoena banatu egiten zen. Gurasoek gurutze handia izan zutela pentsatzen du, gaur egun aurrerapen askoz gehiago daude. Taloa gora eta behera bizi ziren. Txerria eta sardina zaharrak gizonentzat gordetzen ziren.</p>

11. Aurreko belaunaldien sufrimendua

- **Erref:** ORN-001/012
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:23:12. **Bukatu:** 00:24:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Eskolatik etxeratzean beti arropa aldatu behar izaten zuten. Eskolako arropa eta jaietako arropa izaten zuten. Ostegunetan jai izaten zuten eta egun hura arropak garbitzeko aprobetxatzen zuen amak. Ama zeruan dagoela dio, asko sufritu zuen eta.

12. Umeak nola zaintzen ziren

- **Erref:** ORN-001/013

- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 00:24:55. **Bukatu:** 00:28:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Umeak etxeetan jaiotzen ziren. Gauzak izugarri aldatu dira. Umeak nola zaintzen zituzten kontatzen du. Umeen arropak amak gauean beratzen jartzen zituen. Umeen gerrian "paxa" bat jartzen zen arropak ez erortzeko. Sorora joaten zirenean umea kutxa batean uzten zuten. Orduko amek gurutze izugarria zuten.

13. Artean umea zela, neskame joan zen

- **Erref:** ORN-001/014
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:28:42. **Bukatu:** 00:30:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

<p>Neskamea behar zuten etxe batekoek Juanitak komunio handia egin arte itxaron zuten bera haiengana lanera joateko. Neskame joan zen Berrobira eta lana handia egiten zuen. Igandetan bere etxeaz gogoratzen zen eta negarrez egoten zen. Oso umea zen. Orain hori pentsaezina da.</p>

14. Senarraren familian 14 senide ziren

- **Erref:** ORN-001/017
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:34:24. **Bukatu:** 00:37:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Lanbideak » Neskameak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Gasteizko seminarioan bi urte pasa zituen neskame bezala. Han zegoela Ikaztegietak mutil batek gutun bat bidali zion eta beranduago harekin ezkondu zen, hemeretzi urte zituela. Senarra 12 mutiletan txikiena zen. Haren amak Fraisorotik bi neska ekarri zituen. Umeak zaintzeaz gain tabernako barraz arduratzen zen eta herriko neskei josten erakusten zien.

15. Ezkondu eta hamar seme alaba izan ditu

- **Erref:** ORN-001/018
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:37:17. **Bukatu:** 00:39:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Herriko festetan ezagutu zuen bere senarra izango zena. Juanita Tolosara joaten zen jai arratsaldeetan Luisekin, trenez Alegiatik. Denbora gutxi ibili ziren nobiotan. Hemeretzi urte zituen ezkondu zenean eta hogeit hamar seme alaba jaio zitzaizkion. Hamar seme alaba izan zituen.

16. Neskame zebilela urtean behin bakarrik joaten zen etxera

- **Erref:** ORN-001/019
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:39:14. **Bukatu:** 00:40:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Neskameak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Berrobin neskame bost urte pasa zituen, lan eta lan. Urtean behin joaten zen Orendainera, San Jose eguneko bazkaria. Garai pobreak ziren eta neskame ibiltzeak etxekoentzat diru sarrera suposatzen zuen. Juanitak ez zuen dirurik ikusten, ez zuen behar.

17. Berrobitik Tolosara oinez igande arratsaldeetan

- **Erref:** ORN-001/020
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:40:55. **Bukatu:** 00:43:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Jai arratsaldeetan Tolosara joaten ziren eta etxeko andreak zerbait ematen zion han gastatzeko. Hiru lagun joaten ziren. Oinez joaten ziren Berrobitik Tolosara. Tolosan dantzan ibiltzen ziren.

18. Ilundu aurretik korrika etxera itzuli behar zuten

- **Erref:** ORN-001/021
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:43:32. **Bukatu:** 00:44:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Dantzan zebiltzala iluntzeko beldurrez egoten ziren, etxera itzuli behar zuten eta. Etxeko andreak errieta egiten zion, ama izango balitz bezalaxe.

19. Baserriko lanak egiten zituen, neskame zela

- **Erref:** ORN-001/022
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:44:48. **Bukatu:** 00:46:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

<p>Baratzetan marrubi asko biltzen zituzten, belarra jaso, porruak,... Ostiralean biltzen zituzten larunbatean saltzeko. Orbela biltzen zuten behien azpiak egiteko. Behiak umeak egin ondoren goxo-goxo edukitzen zituzten.</p>
<p>

20. Auzkokoen artean oso harreman onak zeuden

- **Erref:** ORN-001/023
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:46:23. **Bukatu:** 00:49:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Neskame bezala maitasun handiz tratatu zuten, ama batek bezala. Ezer falta bazitzairen etxean auzokoei eskatzen zitzairen, harreman oso ona zuten. Enkarguak ere Tolosatik batzuk besteei ekartzen zizkien. Konfiantza handia zuten auzokoen artean.

21. Egunero Tolosara esnea saltzera

- **Erref:** ORN-001/024
- **Iraupena:** 0:06:03. **Hasi:** 00:49:03. **Bukatu:** 00:55:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Tolosara astoan jaisten ziren. Marmidak eramaten zituzten. Bueltan enkarguak eramaten zituzten. Perratzailea Tolosan bakarrik zegoen. Berrobitik egunero jaisten ziren Tolosan esnea partitzera. Etxeetan partitu ondoren sobratutakoa azokan saltzen zuten. Denak prezio berdinean saltzen zuten. Marmidak markatzen zuen zenbat esne saldu. Ez zuten tranparik egiten.

22. Bi urte Gasteizko seminarioan lanean

- **Erref:** ORN-001/026
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:59:12. **Bukatu:** 01:02:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

<p>Orendaingo komentuko fraideek Gasteizko seminarioan lanerako jendea behar zutela esan zien gurasoei. Anai arrebak hara joan ziren. Bi urte pasa zituen bertan, gustura. Irabazten zutena ez daki zenbat zen, zuzenean gurasoei ematen zien eta. Jana prestatzen zuten baina mojak eta fraideak ez zituzten ikusi ere egiten. Asko zeuden bertan lana egiten. Oheak egiten zituzten, arropak garbitu, ontziak garbitu,...</p>

23. Ezkondu aurreko pregoiak

- **Erref:** ORN-001/029
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 01:05:08. **Bukatu:** 01:08:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Ezkondu aurretik Elizan pregoia egiten zuten. Orduan batak bestea ezagutu gabe ere batzuk ezkontzen ziren. Pregoa egiterakoan batzuk ez zutela ezkondu nahi ere esaten zuten, batzuetan gurasoek konpondutako ezkontzak izaten ziren eta.

24. Orendainen ezkondu, Ikaztegieta bazkaldu eta Zaragozara ezkon-bidaian

- **Erref:** ORN-001/030
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 01:08:19. **Bukatu:** 01:10:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>Elizako pregoia andrearen herrian egiten zen eta han ezkondu behar izaten zen. Ezkondu ondoren bazkaria egiten zen. Denek arropa beltzak eramaten zituzten. Bazkaldu ondoren baselizan erretratua egin zuten eta Zaragozara joan ziren zortzi egun pasatzera. Juanita aspertu egin omen zen eta etxera itzuli nahi izan zuen zortzi egun ondoren.</p>

25. Gerra garaian, beldurra pasa zuten

- **Erref:** ORN-001/033
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 01:14:25. **Bukatu:** 01:17:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra hasi zenean, Juanita Berrobin zegoen lanean. Tiro-hotsak gogoan ditu eta beldurra pasatzen zuten. Bidean geldiarazi zituzten zer zeramaten ikusteko. Ezkerra eta eskuinaren arteko borrokak gogoratzen ditu. Soldaduak janari eske etortzen zitzaizkien. Oiloak eta untxiak ere harrapatzen zituzten. Soldadu gehienak "belarri-motxak" zirela dio.

26. Trena Ikaztegietan gelditzen hasi zenean izugarrizko hobekuntza herriarentzat

- **Erref:** ORN-001/039
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 01:29:39. **Bukatu:** 01:31:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Garai batean trena ez zen Ikaztegietan gelditzen. Tren geltokia Juanita ezkondu zen urtean egin zuten. Aldaketa nabarmena izan zen herriarentzat. Orain obrak egin behar dituzte.

27. Orendainen bizi zenean ez zekien erdaraz hitz egiten

- **Erref:** ORN-001/043
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 01:35:59. **Bukatu:** 01:37:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Berrobira joan zenean ez zekien erdaraz. Tolosa bidean ikasi zuten gazteleraz. Orendainen zeudenean harriturik begiratzen zien erdaraz zekitenei.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com